



**2017KO URTARRILAREN 13KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko urtarrilaren hamahiruan, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Joseba Imanol Aran Barandiaran eta Marian Zufiria Apeztegia.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkezten da 2016ko abenduaren 22an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Fakturen inguruan, alde batetik, 2017-01-05eko alkatetzaren ebazpen bidez onartutako eta 2016 aurrekontuari dagokion 106 zbk.dun fakturen zerrendaren berri ematen da.

Tokiko Gobernu Batzarra jakinaren gainean gelditzen da.

Beste alde batetik Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Azertu ondoren 2016ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 112 zbk.dun fakturen zerrenda, BERROGEITA HAMAR MILA EHUN ETA HOGEITA HAMAIIKA EURO ETA HIRUROGEI ZENTIMO (50.131,60 €)takoa eta 2017ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 1 zbk.dun fakturen zerrenda, HIRUREHUN ETA HIRUROGEITA BOST EURO ETA LAUROGEITA HAMAR ZENTIMO (365,90 €)takoa, bere espedienteetan daudenak, onartzea erabakitzen da.

III.- GIPUZKOAKO EROSKETA ZENTRALAREN BIDEZ EGINDAKO KONTRATAZIOA.-

Udal honek, 2014ko urtarrilaren 10ean egindako tokiko gobernu batzarraren bilkuran, eta Gipuzkoako Erosketen Zentralak egindako esleipenari jarraituz, ibilgailuen aseguru estaldurei buruzko kontratua urte beterako Seguros Bilbao S.A.ri esleitzea erabaki zuen.

Esleipen horren ondoriozko kontratua 2014ko urtarrilaren 13an izenpetu zen.

Orain, kontratu horren hirugarren luzapena planteatzen da eta, dagozkion izapideak egin ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuko Foru Diputatuak, 2016ko azaroaren 29n emandako Aginduaren bidez, "Foru Kontratazioen Zentralaren bidez ibilgailuen aseguru estaldurei buruzko kontratua kontratatzekeo Esparru Akordioa (X16022)" urte betez luzatzea baimentzea ebatzi du.

Guzti hau horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, udal honek Seguros Bilbao S.A.rekin ibilgailuen aseguru estaldurei buruzko daukan kontratua urte betez luzatzea erabakitzen du.

IV.- HEZKUNTZA ETA EUSKARAKO DIRULAGUNTZAK .-

Hezkuntza eta Euskara Batzordeko Presidenteak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

- Goierriko Euskal Eskola.-
Gerriko Ikerlan Bekarako 2016 urteko diru laguntzaren bigarren zatia, bi mila eta bostehun euro (2.500 €) ematea.
- Goierriko Euskal Eskola.-
Mintzalaguna proiekturako 2016ko diru laguntzaren bigarren zatia ematea. Lehenengo zatia onartu eta ordaintzerakoan, bost mila eta bostehun euro hartu ziran oinarritzat bost mila eta berrogeita hamar behar zuenean. Hori horrela orain lau mila eta seiehun euro (4.600 €) ematea erabakitzen da.

V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak laurden gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



**LAZKAOKO
UDALA**